ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko irailaren 29a, asteazkena • 111 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

2021eko JEZaren ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Jendeari jakinarazten zaio 2021eko urriaren 13tik aurrera kobratzeko moduan jarriko direla, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2021eko ordainagiriak.

1. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko aldia: 2021eko urriaren 13tik 2021eko abenduaren 17ra, biak barne.

B) Betearazte aldia, ehuneko 20ra arteko errekarguarekin: 2021eko abenduaren 20tik aurrera betearazte aldiko errekarguak, premiamendu murriztukoak eta arruntekoak ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei gogorarazten zaie banketxetako helbideratzeen altak edo aldaketak udaletxean izapidetu behar direla. Ordainagiriak 2021eko abenduaren 10ean kobratuko dira.

B) Helbideratu gabeko ordainagiriak: Zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dituzte, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Komunioi, 2021eko irailaren 22a

Alkatea
JAVIER URIARTE JAIRO

Firmante: CN=FERRITU OROKOREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SISTEMAS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=AVPA Herritar langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Zuntagoi publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211866
Fecha de firma: 2021.09.29 05:50:15 Z